

ttüpi-ttapa

1994.eko urtarrilak 20 • 126. zenbakia

Elkarrizketa

Txomin Mindegia

Kirola

Aizkol desafioa

P. Mindegia-Senosiain



**ARKUPEKOAK
ARGENTINARA**

ttipi-ttapa

Orain

publizitatea

koloretan


zuri beltzekoaren

prezioan

Deitu tamainak

eta prezioak

kontsultatzeko

 631188

Centro Comercial



LUIS
MARIANO
Irun

40 ESTABLEZIMENDU ZURE ZERBITZURA

13 arropa denda, kirol denda bat, optika bat,
2 oihal denda, lentzeria bat, zapata denda bat,
4 kafetegi, inprimategi azkar bat, kristaldegi bat,
2 banketxe, bulego materiala, argazki denda bat,
dekorazio denda bat, supermerkatu bat,
aseguro etxe bat, ileapaindegi mixto bat, drogeria bat,
bidai agentzia bat, PVCKo nahiz zurezko leiho eta atak,
hizkuntz akademia bat, moketak eta pinturak, etxe saltzaile bat...

Denetarik

gauzarik hoberenak.

Irun erdi-erdian.

Parkina eta guzi.

LUIS MARIANOko

komertzioen arteko

zozketan, utarilararen 4ean


egin zena, 13078a izan da

zenbaki saritua.

Zenbaki hau IRIBARRENen banatu zen.

Txomin MINDEGIA:

«Malerrekan euskara erabiltzea falta da, ezagutza badagoelako»



ibili baikara, ahal genuen bezala eta eskurra genituen gauzak hartu eta tira aintzinerara. Euskararen erabilpena falta zaigu, zeren ezagutza bada.

ABENDUAN ANTOLATU DITUZEN EKITALDIAK ZER MODUZ ATERA DIRA?

Bat edo bertze ken-

duta hagitx majo atera dira. Herrietan harre-
ra ona izan genuen,
jendea mugitu zen.
Herri ttikietan esker-
tzen dute horrelako
gauzak eramatea.
Kontent gelditu ginen
bainan nere ustez, hori
ez da guk egin behar-
reko gauza, erakun-
deek baizik.

GIZARTEAREN ZEIN ARLOTAN DA ZAILLAGOA EUSKARA NORMALIZATzea?

Gehien bat merka-
taritzan eta enpresetan.
Komertzioetan, jen-
deak konprenitu be-

harko luke saltzeko
komenigarria dela
euskara jakitea, baina
enpresetan bertze
mailako harremanak
daude, kanpora begira
eta zailagoa izanen da
euskara sartzea.
Osasunbidean gerta-
tzen ari dena ere ika-
ragarria da eta ir-
tenbidea badu, mediku
euskaldunak izanen
direlako edo bertzela
euskaldundu daitezke.
Baina Nafarroako
Gobernuak ez du deus
egin eta bakarrik jen-
deak eskatzen badu
eginen da.

DATUAK

❖ *Malerrekako 'Langarra' euskara taldeko kidea.*

❖ *39 urteko doneztebarra, Oteiza auzoko 'Etxegorri' baserrikoa da sortzez.*

❖ *Euskaldun zaharra izan arren, euskara landu egin du.*

❖ *Ogibidez, Doneztebeko eskolako atezaina edo kontserjea da.*

❖ *Bere ustez, Malerrekako herrietan karretera generaletik zenbat eta hurbilago egon orduan eta gehiago nabari da erdararen eragina.*

❖ *Haseran 20-25 biltzen baziren ere, gaur egun hamar bat lagun elkartzen dira Langarra taldean.*

ZERTAN DA EUSKARAREN EGOERA MALERREKAN?

Goiko herrietan, karretera generaletik urrun daudenetan, euskararen egoera ongi dago, gazteek euskaraz egiten dute eta maila oneko euskara gainera. Karretera pasatzen den herrietan nabari da erdararen eragina, nahiz eta euskaraz egin. Errepideak industria ekartzen du, honek komertzioa eta mundu horretan erdaraz egiten da, normalki.

ZEIN HERRIETAN DAGO ARAZORIK HAUNDIENA EUSKARAREN NORMALIZAZIO-RAKO?

Behitiko herrietan, Doneztebe, Legasa edo Narbarten. Sunbillan, nahiz eta karretera pasatu maila hobe dago.

HORI MOLDATZEKO NONDIK HASI BEHAR DA LANEAN?

Azpi azpitik eta indarra dagoen lekutik. Goiko herrietan dagoen indarra hartu eta behitira, Doneztebe aldera ekarri. Horretarako plangintza orokor bat egin behar da eta hortan saiatu, orain arte erdipurdika

❖ *“Legea ohituren gibeltik egiten da eta jendeak euskara erabiltzea eskatzen badu legea egingen da; jendeak euskaraz eskatzen badu merkataria euskaraz salduko du”*

DUELA HIRU URTE ARGENTINAN BIZI DIREN FAMILIARREK ETORRI ZIREN, ORAIN HEMENGOAK JOANEN DIRA HARAT

Hemen bizibidea ateratzea beltz zegoenean, Amerikara jo zuen jendeak erruz. Argentinatik EEBetara, ehundaka euskaldun daude gaur egun oraindik. Hauetako batzuk bisitatuko dituzte 'Arkupeak' elkarteko egunotan.

TESTUA
JOXEMANUEL IRIGOIEN
 ARGAZKIA
GOIKO

guzira 76 bazkidek izanen dute hilabete honen 29tik otsailaren 15a bitarte, Argentinan dituzten familiarrak bisitatzeko aukera. Eta familiakoak ikusteaz gain, Argentinako xoko polit haiek ikusi eta ezagutzeko modua ere ez dute aisa galduko. Errate baterako, Brasil eta Argentina artean dauden Iguazuko ur-jauzi edo kataratak, Mar de Plata eta Bariloche aldeak, Buenos Aires hiriburua... leku arrotzak, seguraski, hemengo mendi xokoetara eginak dauden begientzat.

EGUNEZ EGUNEN EGITARAUA BETE-BETEA

Joan baino lehenagotik Felipe Ganboa elkarteko lehendakariak kontatu digu-

nez, xehetasun guzi-guziak kontutan hartuak dituzte eta azkeneko momentuak aldatetarik sortzen ez bada behintzat, eguneroko egitaraua ere estu-estu betea dute. Denborapasako bidaiez gain, elkartasuneko zenbait besta egitea pentsatua dute. Lehendabizikoa Mar de Platan, eta bertan, hemengo eta hango familiarrekoez gain, Euskal Etxe eta Nafar

Etxeetako ordezkariak bilduko dira. Bigarren beste Buenos Aires-en emanen da 'Fiesta Campera' deitzen duteneko. Iduri duenez parrandan ibiltzeko egokiaz izanen da gainera: gaitxo tango festibala... Azkeneko bestak despedida edo agur egiteko balioko die. Hangoak eta hemengoak artean 300-400 lagun biltzea espero dute antolatzaileek.



1990KO IRA
 ETA URRIAN,
 KUPEAK ELK
 TEAK GONBID
 TA, HAINBAT
 GENTINAR ETO
 ZIREN HONAT
 BATZUK PASATZ
 ETA FAMILIAK
 IKUSTERA. ARG
 KIA LESAKAKO
 MINATEGIRA E
 DAKO BISITAN
 RIA DA.





MUNDUKO LEKU DESBERDINETARA ERE, HONEZKERO BIDAIUGARI EGINAK DITUZTE 'ARKUPEAK' ELKARTEKOEK.

ONDOKO ARGAZKIAN AITA SANTUAREKIN VATIKANON EGON ZIRENEAN.

HAMARRETIK HIRU 65 URTETIK GOITIKOA

Demografiaren bilakae-
rak gure herrietako bizila-
gunen banaz bertzeko adina
izugarri haunditzea ekarri
du. Eta joera hori gaur egun
nabarmena bada ere, den-
borarekin oraindik ge-

hiago nabarmenduko omen
da. Gauzak horrela, estatis-
tika datuek diotenez, zona
honetako hamar lagunetik
hiru 65 urtetik goitikoak da
gaur egun. Hortaz, hiruga-
rren adinaren problema-
tikak, indar haundia hartu
du maila guzietako erakun-

deetan. Seguritate Sozialak,
adibidez, orainarte sekula
eman ez dituen laguntza
klaseak hasia da ematen
etxeetan zaharrak egokiago
zaintzeko. Gainera, epeak
betetzen badira, heldu den
udatik antzinera eta zona
osorako Donezteben Segu-

ritate Sozialak martxan jarri
nahi duen kudeaketa zerbi-
tzua ere hor dago. Etxebizi-
tza tutelatu edo zahar etxeen
kontuarekin ere ari dira
gauzak mugitzen... eta ho-
rrela bertze mila kontu, Ar-
kupeak elkarteari esker
gauzatzen ari direnak ■



«Bidaiak eta bestak
antolatzeaz gain,
adinekoen problematika
orokorra landu nahi dugu»

1993ari despedida
emateko, Arku-
peak elkartekoek,
urtero egiten du-
ten besta antolatu
zuten Donezteben
abenduaren 29an.
Meza ondotik
elkarteko ardura-
dunek urte hone-
tan egitea pentsa-
tuak dituzten
aktibitate eta zer-
bitzuen berri eman

zieten bildutakoei. Eta egia
erran, gauza pila eskaintzen
dute. Ikusi bestela:

KULTUR ATSEDENEZKOAK

Herriko eta Nafarroa
mailako Mus-txapelketa,
Kultur Astea, gimnasia
ikastaroak, adinekoentzat
hitzaldiak, ezkil-jotze le-

hiaketa, eskulanak...

ERLIJIOSOAK

Erromesaldiak Lourdes,
Loiola, Arantzazu, Lezo eta
Aralarko San Migelera.

OSPAKIZUNAK

Zaharrenei omenaldia,
Urrezko Ezteiak, jubilatuen
tokian tokiko bestak, he-
rriarteko anaitasun besta,
urte bukaerako besta.

BIDAIAK

Argentinara (17 egun),
Kanariar irletara (14 egun),
Benidorm-era (14 egun
maiatza eta urria) Asturias,
Galizia eta Portugalera (10
egun), Santanderrera (4
egun), Estartit-era (10
egun)... Hauetaz aparte,
egunpasako bidaiak ere an-
tolatuko dira. Holakoetan
banaz bertze 600 lagun bil-
tzen dira.

BOTA BERTSOA



Huelga Orokorra

Irune SANSINENA

Baztango Bertso Eskola
Neurria: Hamarreko haundia

*Urte berria goibel hasi da
eguzkitsu hasi ordez
iazko urtea latza izan bazen
bau ez dugu hobea ez
langile denen lan egoera
oker bidetik doanez
ene langile bertso bauen bidez
eskatzan dizut mesedez
garaia denez ernatu motel
eta bebingoz altxa zaitetz.*

*Aipatzekoa da iazko urtea
grebaz bukatu izan zela
urte berria hasi da eta
badago bertze bat bela
langile jakin guda bonetan
premiatzkoa zarela
kalera atera beldurrik gabe
ez zaitetz izan tentela
zuk badakizu zerbaiz lortzeko
gogor jokatu behar dela.*

IRAKURLEAK MINTZO

Eskualdeko presoak gogoan

Urte berria ilusio zaharrez jantzia hurbildu da aurten-goan ere. Ez dut uste, zenbaitzuk, eguberria zela eta, pake eta zoriona aldarrikatuz egiten zituzten saiakera horiek emaitza baikorrak bihurtuko direnik: "izan dadila joan zaigun urtea adinakoa" edota "Berriro ere elkarrekin irauz dezagun horrelaxe..." edo antzeko esaldiek mina egiten digute etxetik urrun daudenen alde egunez egun ahal dugun guziaz ematen dugunoi.

1.993. urtean ere torturatzan jarraitzen zen komisaldegietan. Kontrol gogorak ezartzen ziren errepideetan eta giza eskubideen zapalkuntza egiten zen espetxeetan, besteak beste. Eta bitartean guk zer? Ez dakit behar hainbat oihartzun jasotzen duten herriaren alde borrokatzeagatik, gaur egun askatasunik gabe dauden eskualdeko presoek.

Nola uler daiteke bestela aurtengo maiatzean 15 urte giltzaperaturik dagoela beteko direnean, Apeztearen aldeko laguntza

eskasa? Nola ulertu Nieto gaztearen kasua, Pariseko espetxean zegoelarik bere kide baten heriotza bertatik ezagutu zuelarik? Preso baten egoeraz beste batek bizia eman duenean konturatu behar al dugu? Nola ulertu senitatekoek darabilkiten joan etorria, inun diren umilazio, tratu txar, kilometraje eta galera ekonomiko larriak jasotzen dituztenean bisitetan?

Geuk konpromisoa hartu genuen presoan aldeko borrokan aurrera egin

behar genuela, informazio zabala izan zezaten herri-tarrek, baina erantzukizuna herritar guztiena da. Norberak konturatu behar baitu arazoa larria dela.

Aurtengo urte honetan saia gaitzen denok presoekin harremanak izaten, bai kartaz edo bai bisitaz. Presoek eta senitatekoek eskertuko digute.

ARANTZA IPARRA,
LEITZAKO AMNISTIAREN ALDEKO
KOMITEAREN IZENEAN



OHARRA:

Eritzi ezberdinek tokiak izan dezaten, ez da komeni makinaz idatzitako 25 lerro baino luzeago idaztea gutun hauetan. Idatzi duenaren izen-deiturak, telefonoa, helbidea eta NAaren zenbakia agertu beharko dira. Laburtu beharra izanez gero, ttipi-ttapak bere esku izanen du horretarako eskubidea.

LANCHAS

- Parketak - Tarimak
- Kutxillatzea eta bernizatzeak
- Estaldura orokorrak

BERA © 630735 • IRUN © (943) 622305



GRUPO  ZURICH

ASEGURO OROKORRAK

Itzea, 4 - BERA - Tfnoa.: 63 07 63

ZIZKA OSTATUA

Martxa eta mozkor saltsa
Altzate 28 - BERA

OKANE

Haragi, janari-izoztu, enbutido, jogurt...

Kanttonberri 4, Tfnoa: 63 00 18 - BERA

LEGE GORDAILUA: NA-1324/85

FRANKEO ITUNDUA: 34/79

TIRADA: 5.700 ALE

ARGITARATZAILEA: TTIPI-TTAPA KE

HERRIKO ETXEO PLAZA, 1

31780 BERA

TFNOA.: 63 11 88

FAXA: 63 12 91

Zuzendaria: Joxemanuel Iri-goien. **Publizitatea:** Miren Karmele Tolosa. **Erredakzioa:** Aitor Arozena, Joxemanuel Iri-goien. **Erredakzio taldea:** Pello Apezetxea, Juainas Paul, Kristina Boan, Bittori Telletxea. **Berriemaileak:** Joseba Azpiroz, Esteban Arozena, Juana Mari Saizar, Ainhoa Mutuberria, Iban Isasi, Txema Aldabe, Pello Etxegia, Txema Urroz, Patxi Otxandorena, Daniel Martirena, Ixabel Maia, Josune Etxebeste, Pablo Mendiburu, Joseba Igarabide, Alizia Olaizola, Margari Etxenike, Koro Irazoki, Mixel Gerendiain, Jacqueline, Marta Iturria, Oskar Txoperena, Alberto Sansiñena, Pello Apezetxea, Aitor Arozena, Joxemanuel Iri-goien. **Kolaboratzaileak:** EHNE Nafarroa, Patxi Lasa, Josetxo Susperregi.

Erakunde Laguntzaileak: Bera, Leitza, Goizueta, Areso, Baztan, Urdazubi, Zugarramurdi eta Sarako udalak, Bortzirietako Euskara Mankomunitatea, Malerrekako Zerbitzu Mankomunitatea...

Inprimategia: Gertu.

ttipi-ttapa ez du bere gain hartzen derrigorrez, aldizkarian adierazitako erranen eta eritzien erantzukizunik



Aldizkari honek Nafarroako Gobernuaren laguntza jaso du



Aldizkari honek Eusko Jaurlaritzaren Kultura Saileko laguntza jaso du

GAURKOTASUNEN GAIA

Urtarrilaren 27ko huelga orokorra eskualdean

Huelga salaketa modu bat da, baina ez du deus konponduko

Joseba IGARABIDE
L.L.ko langilea

Sindikatu haundienek ez dute behar den gutzia egin eta beraiek ere errudun dira, iritsi garen puntu honetara iristeko. Ez dago langileen arteko batasunik, baina halere erantzuna eman behar zaio egoerari, erreflexio bide batean sar gaitezen. Huelga eginen dut, nolabait ere egoera aldatu beharrean gaudelako. Behin behineko lan kontratuen ugaltzea gaizki iduritzen zait, langileen eskubideak murriztu eta bi langile mota sortzen dituelako. Batzuk, kontratu finkoa dugunok, badirudi pribilegiatuak garela eta bertzeak bigarren mailakoak, eta bien arten tirabirak sor daitezke.

Huelgak ez du inolako eragin txarrik ekonomian, hori agintarien lelo bat bertzerik ez da. Azken finean, krisiaz hitzegiten denean krisia norrena den galdetu behar dugu, batzuk arras ongi bizi dira eta bertzeak gaizki. Dena den, huelga honek ez du deus konponduko baina salaketa moduan balio du.

Momentu honetan gelditzen zaigun neurri bakarra da

Modesto MAIA
Lesakako Udaleko funtzionario

Bizi dugun egoera ekonomikoa dela eta, nik erranen nuke momentu honetan huelga egitea egokia izateaz gain langileoi gelditzen zaigun neurri bakarrenetakoa dela. Zentzu horretan, nik neronek huelga egitea pentsatua dut, langilea naitzelako eta elkartasuna adierazteko. Azken urteotako joerak, behin behineko kontratuen ugaltzea ekarri du eta lan kontratu finkoen murriztea. Ez dut uste bide horretatik arazoa soluzionatuko denik.

Kezkagarria da baita 'ekonomia sumergida' delakoak hartzen ari duen bolumena. Langilearen ikuspegitik ez zait ongi iduritzen, baina ulertzen dut aunitzetan langile edo langabetuari gelditzen zaion irtenbide bakarra dela. Orokorrean, ekonomia kontuetan agintariak darabaten politika ez da egokia, beti bezala ahaltsuen alde jokatzeko baitute. Beraz, 27ko huelga Gobernuak daraman politika aldatzeko neurri bakarra da.

Kontua ez da egun batez huelga egitea eta gero deus ez

Lourdes JUANTORENA
SARRIOko langilea

Historikoki langileen eskubideak defenditzeko dugun tresna izan da. Hortaz, gobernuak aurrera eraman nahi dituen neurriak geldiarazteko, momentu honetan beharrezkoa da. Horrez gain berrindustrializazio eta esparru sindikal autonomo baten alde borrokatuko behar dugu. Huelga hau kanpaina baten barnean sartzen da, mobilizazio gehiago badaude. Kontua ez da 27an huelga egitea eta gero deus ez, egunero segitzea baizik. Erne egon beharra dugu eta sektore guztiak huelga egitera animatu, langileak, etxekoandreak... Nik neuk huelga egiteko asmoa dut. Zergatik? gobernuak lanaren administrazioa enpresaren esku utzi nahi duelako, langileen kanporatze libre eta debaldekoa onartu, langabetuak IRPF ordaintzera behartu, pentsio kobratzeko kotizazioa ere luzatu nahi duelako... Sarrion adibidez urte terdian 150 langile fijo guttiago daude.

LEGARRA

• PAPERTEGIA • TABAKOAK •
• LIBURUAK • OPARIAK •

ZERBITZU BERRIAK

- ☞ Fax Publikoa
- ☞ Enkuadernazioak
- ☞ Inprenta lanak • fotokopiak
- ☞ EGUNKARI hauek SALGAI

Diario Vasco, Diario de Navarra,
Navarra Hoy, El Mundo, As, Deia,
Diario 16, Egin, Egunkaria, Marca,
El País

Legarrea 9, ☎ 637030 - LESAKA



GIZONEZKOEN
MODA

muñeca
de trapo

EMAKUMEZKOEN
MODA

BIAK, IRUNgo LUISMARIANON



Egin

«Krisiaren goibeltasunean murgildua dago Baztan, denborak eragin izugarria izan du bertan, baserri mundutik 'zibilizazioa' pasatu gara, aldaketa itzela».

Lander SANTAMARIA
Kazetaria eta 'Baztan' liburuaren egileetako bat
«Nafarkaria» 94+7

«Koipu izeneko animalia iren lehenengo aipamena 1980. urtean eman zen, Errobi eta Bidasoa ibaietan. Geroztik gero eta ugariago biburtu da Lesaka, Doneztebe, Bera herrietan oso ondo dakitenez. Larru haztegietatik ibes egin du eta oso ondo moldatu da Europako estatu askotan».

Ingurugiroa
«Egin» 94+13

◆ **Zubietarra edo aresoarra?**

- ❖ Bietakoa naiz.
- ◆ **Sukaldaritzaren edo jostungintzaren ikastaroa?**
- ❖ Sukaldaritzaren.
- ◆ **Mendia edo hondartza?**
- ❖ Biak gustoko ditut.
- ◆ **Bordatxo dantzalekua edo herriko festak?**
- ❖ Herriko festak, orain gure egoeran...
- ◆ **Dantzatzeko sueltan edo 'agarrak'?**
- ❖ Biak.
- ◆ **Xorroxin edo Karrape Irratia?**
- ❖ Karrape, hemen hori entzuten baita.
- ◆ **Gustoko janari bat?**
- ❖ Odolkia asko gustatzen zait.
- ◆ **Bertsolari bat eta abeslari bat?**
- ❖ Andoni Egaña eta Xabier Lete.
- ◆ **Larunbat ganean, zinera edo afaltzera?**
- ❖ Afaltzera lehenbizi eta hortik aurrera...
- ◆ **Zein da gehien gustatzen zaizun kotxea?**
- ❖ Mercedesak.
- ◆ **Asteazken zehar, zein da zuretzat egunik hobena?**
- ❖ Larunbat goiza, lo egiteko aukera ematen baitit.



Maite SANTESTEBAN
Zubietarra Aresoara ezkondua

GOZOTEGI - JAZONE



Itzea 3, 630786 - BERA

Zati honek **3.000 Pta.** balio ditu

3.000 : 5.700 errebista =

0,52 Pta. errebista bakoitzeko

BOTXO
ostatua

Tfnoa.: 63 00 52
Zalain auzoa, BERA



Errefreskoak, Ura, Ardoak, Likorrak, Txanpaina
Tfnoa: 63 10 27 • BERA

ZURE BIDAIAK, ZEURE NEURRIAN ANTOLATUTAKOAK



ERRO
BIDAIK

- ✕ HERRIAK
- ✕ MENDIAK
- ✕ TURISMOA
- ✕ TREKING eta BIDAI ALTERNATIBOAK

BIDAI
AGENTZIA
G.A.T. 2.015

ADUANAN KALEA, 5
☎ 943 - 615177
☎ 943 - 619489
FAX 943 - 619517
20.300 IRUZIN



Soktirako neskak Euskadiko txapelketara

Lehenengo tirada otsailaren 20an izanen dute


K. BOAN ETA J. IRIGOIEN

Aurten ere sokatirako neskatxak gogor hasiak dira entrenatzen. Herri osoa lasterka zeharkatzen dute eta elizako eskalera ere bisitatzen dituzte gauetan. Intentzioa Euskadiko txapelketan joan den urtean bezain ongi aritzea dute, eta ahal den neurrian marka hobetzea. Bertze kategoriatan talderik ateri ez denez, 480 kilotako kategorian arituko dira.

Sokatirako mutilak, bertalde, jende berria animatzeko deia luzatu berri dute. Norbait animatuz gero, jakin beza entrenamenduak astelehen, asteazken eta ortziraletan dituztela.

Kultur Batzordea

Urte honetako programa prestatzeko bilera heldu den asteazkena (26) izanen da Herriko Etxean 7etan.



tipi-flash

❖ Korala

Jendea behar da Korala osatzeko. Entsaioak astearte eta ortzegunetan Musika Eskolan.

❖ Luberriak

Lur komunaletan luberriak ateratzeko bi dira aurkeztu diren eskariak: alde batetik Gonzalo Igoak Usategieta aldean eta bertetik Agustin Leonisek Magirrerleta aldean.

❖ Lan kontratuak

Administrari laguntzaile modura lan egiteko, behin behineko bi lan kontratu egitea erabaki zuen udalak. Hoietakoa batek gaur egun bajarekin eta jubilatzekotan dagoen Balleri ordezkatu du. Bigarren lanposturako Itziar Ibarra kontratu da.

❖ Intzolako zabortegia

Zabortegiko ur-zikinak Berako saneamendu sarera biltzeko proiektua onartu da. Diputazioak 16 milioi pta. emanen ditu hortarako.

ZALAIN JATETXEA

Eguneko menua eta karta

Boda eta banketeak ematen dira

Zalain auzoa, Tfnoa: 63 11 06 BERA

SAROB okindegia



SANDERS Pentsuak

Eztegara 41, Tfnoa: 63 08 99 - BERA

Bixente TABERNA

ARGAZKILARIA

• EZKONTZETAKO Erreportaiak

• Bautizoak (Bataioak)

• Komuniok

Tfnoa: 630597 • BERA





Pleno aretoaren erabilera zehaztu du udalak

Ezin izanen dira ekitaldi politikoak egin eta antzinetik 50.000 pezeta paratu beharko da

AITOR AROZENA

Herriko Etxeko pleno aretoaren erabilera mugatu zen azken udal batzarrean, EA eta PNVren aldeko botoekin.

Pleno aretoa erabiltzeko eskaerak elkarte izenean egin beharko dira, arduradun baten sinadurarekin eta ezin izanen da gai politikoetarako erabili. Antzinetik gainera, 10.000 duroko fiantza utzi beharko da udal bulegoetan. Ekitaldien propagandan Herriko Etxearen izena laguntzaile bezala agertu beharko da eta administrazioarekiko harremanak euskaraz eta erdaraz edo euskara hutsean izaten ahal dira.

HBk kontra botatu zuen, proposamena erdara hutsez zegoelako, nahiz eta alkaterearen erranetan, bi hizkuntzetan banatuko da herritarren artean.



Errege egunean Tantirumairu eta Irain dantza taldeetako helduek saio bikaina eskeini zuten Obeso

Tantirumairu dantza taldeak ia zko balantzea egin du

Tantirumairu dantza taldeak ia zko ikasturtearen balantze positiboa egin du, izan ere 14 saioetan parte hartu baitu.

Honetaz gain, Tantirumairu txarangak sei herrietako bestetan aritu da. Dantza taldeak, Lesakan bertan, Santiago Irigoienaren omenaldian, jaunartze egunean, sanfermine-

tan, Euskal jaian eta Dantza txiki egunean parte hartu du. Herri-
tik kanpora, Soralueko euskal jaian, Oretako Gabierrota auzoan, Astigarragan, Irungo euskal jiran,

Belaskoainen, Sarako udako jaialdian, Garesko dantzari txiki egunean, Ustaritzeko Lapurtarren Biltzarran eta Martutenen aritu ziren dantzari.

Aurten txaranga, txistulari eta dantzari taldeez gain, lehen ekitaldia sanfermine-tan egingen duen gaitero talde bat ere martxan paratu nahi dute.

ttipi-flash

❖ Ski kanpainan

parte hartuko duen ikasle bakoitzeko 2.500 pezeta jasoko dute Irain eskolako eta Tantirumairu ikastolako udaketik. Honela ikastolako 57.500 pezeta jasoko du eta Iraineko 72.500. Kanpaina, martxoaren 13tik 18ra izanen da, 6., 7. eta 8. mailako ikasleentzako.

❖ Bagobakarra

inguruan 400 bat metroko mendi pista egiteko eta bertze bat moldatzeko baimena eman du udalak, Nafarroako Gobernuak idatzia ikusi ondotik.

❖ Frontoiko

ostatua bertze bortz urtez izanen da Be-goña Tabernaren eskuetan.

❖ Herriko Etxeko

garbiketa lanak M^o Carmen Mikeok egingen ditu aurten.

❖ El Salvadorren

hauteskunde demokratikoak egitea eskatuz 'Mugarik gabe' erakundeak aurkeztutako idatzia ahobatez onartu zuen udalak.

EROSLE

LESACA

Kalitate-prezio arteko orekarik hoberena

Frexkuena
zugandik
hurbilago

Bitirria 67 - Tfnoa: 637264



Lore eta landareak

Frain auzoa Tfnoa: 63 78 26
LESACA

IRUBIDE

OSTATUA
ERRETEGIA

Tfnoa.: 63 71 27 LESACA

Deñe

LENTZERIA
MERTZERIA

Tfnoa.: 62 75 14

Beheko Plaza 8, LESACA

XATURETXEA



JATETXEA

Tfnoa.: 63 70 27 LESACA

ARRANO



OSTATUA

Legarrea - LESACA

Sarezko hamar usategietan 9.374 uso harrapatu dituzte

Beraietako ehiztariak urtean bi bider biltzen dira



Urtarrilaren 2an banatu ziren Larraburuko mus txapelketako sariak

Javier Indaburu

Etxalar

PELLO ETA ALBERTO

Hamar usategik egiten dute sarek ehi-za, bat ez gainekoak Euskal Herrikoak: Napal, Etxalar, Lekunberri, Lan Tabat, Oskitx, Gatagorena, Sara, Orobi Beorlegi, Aldudes, Lan. Gehien Napal-ek ehizatu du, 2.219 uso-txoloma, Lan-ek 1.731 eta Etxalarrek 1.715. Sarrak 131 bakarrik. Duela 18 urte, hamar usategi horietan 38.000 uso harrapatu zituztela gogoratzen badugu, ezin ukatu sarekoko ehizak gainbeherada ederra egin duela.

Larraburua elkarteko berendua

Aurten ere goxokiz

ase ditu herriko haurrak, Errege eguneko arratsaldean. Musika-joleak bertako nerabe eta gaztetxoak izan dira.

Larraburuko mus txapelketa bukatu da

Larraburuan udazkenean jokatu den mus-txapelketa Gaston Lestuzzi eta Pello

Apezetxeak eskuratu dute eta Prudentxio Sanzberro eta Fermin Iparragirrek 2. postua.

Personaiak



Estela Maris Iturbide: Argentinatiketorria euskara ikastera. Iribarreneko Bordakoa bere aita.

■ Zerk bultzatu zaitu euskara ikastera?

◆ Jakin-minak, nere aita eta aitonek hitz egiten zuten hizkuntza ezagutu nahiak.

■ Orain, ordea, zerbait ezagutzea baino gehiagoren bila zabilta.

◆ Bai, ikasten hasi ondok, gero eta euskaraganako zaletuago sumatu dut neure burua.

■ Ez zara, bada, lanerako komenigarri duzula ikasten ari.

◆ Ez, aitzinekoekin lotzen nauen zerbait ne-re bezala sentitzen dudalako. Mintzatzen ikasi nahi dut, ez gramatika.

ARRATZUBI ardotegia

Tfnoa.: 63 72 79
Bittiria karrika - LESAKA

SASKI
OSTATUA
LESAKA

BERAn

Hidraulika, Fisika eta Kimika klaseak ematen dira.
Interesatuak deitu 630240
eta 631375 telefonoetara.

ttipi-ttapa

5.700 harpidedun
20.000 irakurle

ESTHER ATEAK, C.B.

Zarandia 9, ☎ 627584 - LESAKA
☎ (943) 610319 - IRUN

- Parket flotantea
- Tarima
- Kortxoak
- Ate korrederoak dituzten armarioak
- Paretan sartzeko armarioak



KAXULAK • GOSARIAK • BAZKARIAK

Gurutze Etxea - Jauregieta auzoa - Tfnoa: 635038
• ETXALAR (NAFARROA) •

Igantzi!

Ekitaldi politak izanen dira heldu den hilabetean

Nafarroako Aurrezki Kutxan ebasteen saiatu ziren urte zahar antzineko gauetz

OSKAR TXOPERENA

Ez da nolana hioa izanen heldu den hilabetea, aste ondar guziak zerbaitekin beteak baitaude: inauteriak, Patxiku Etxeberriari omenaldia, Biltokiko asanblada etabar. Denetaz mintzatuko gara bere tenorean.

Lapurrak

Antzineko alean Nafarroako Aurrezki kutxak egin behar duen bulego berriaz mintzatu ginen eta oraingoan ere aipagai dugu, urtezahar antzineko gauean bertan ebasteen sailu baitziren. Errandigutenez izugarriko iskanbila armatu omen zuten plaza inguruan. Sire-



Ikusten duzuenetz, Igantziatik pasatzeko tartea ere hartu zuten Erregeek. Halere, eguraldiak ez zuten sobera lagundu.

na jo zuten bainan bertan segitu zuten eta Guardia Zibilak sumatu arte ez zuten aldegin.

Arkupeak

Abenduaren 29an Bordatxon egin zuten bestera 29 bazkide-igantziar joan ziren.

Urtarrilaren 14ean herriko besta egiteko 45 lagun inguru daude apuntatuak berri hauek bidaltzerakoan.

ttipi-flash



Mertxe Etxarte:

«ez nuen erreka eskerralde hontan eguberri gaueko moduko uholderik inoiz ikusi.



Loiaga

eta Erreunta artean isuri haundia izan da orain dela gutti arte, bertan sortzen den uraren tuboa lehertu baitzen. Orain arketa berria paratu dute.

LORA DENDA
TXIRULA
 Bitria LESAKA
 627542
 bitxikeriak • opariak • eskulangintza

Zati honek 4.500 pezeta balio ditu
 $4.500 : 5.700$ errebista =
 0,78 pezeta errebista bakoitzeko

KOXXKONTA



Sagardotegia zabalik

Deitu erreserbak egiteko

Otsango auzoa, Tfnoak: 627503 / 627519 - LESAKA



KATTU

OSTATUA
 JATETXEA

- Karta
 - Eguneko menua

Matxinbeltzenea, Tfnoa: 62 75 73 • LESAKA





Iñauteriak otsailaren hasieran ospatuko dira

Bertzalde, Ander Agesta eta Rafa Errandoneak Baztango pilota txapelketa irabazi zuten

MARTA ITURRIA

Iñauteriak, otsailaren 3, 4, 5 eta 6an ospatuko dira, honako egitarau honekin:

Ortzeguna 3:

Mozorroak puxka puxka egiten ibiliko dira baserrietan barna. Gaez, emakumeen afaria Pabloanean.

Ortzirala 4:

Mozorroak herrian barna ibiliko dira eta arratsaldez eta gaez musika Gregorio eta Joakinekin.

Larunbata 5:

Arratsaldeko 5etan haur mozorroen lehiaketa. Gaueko 10,30etan herri kirol taldeak antolatutik bertso jaialdia frontoian: Andoni Egaña, Xabier Euskitze, Xe-

bastian Lizaso, Iñaki Murua, Manolo Arozena eta Angel Mari Peñagarikano. Gai-jartzaile bezala Patxi Larretxea arituko da. Ondotik gaupasa Irati taldearekin.

Igandea 6:

Eguerdiko 12etan pilota partidoa: Rafael Errandonea eta Ander Agesta, Olaizola eta Rodriguezen aurka. Ondotikan bertsolariak, Xebastian Lizaso eta Jokin Sorozabal. Ordubiak aldera herri bazkaria Aterpe erretegian, bertsolariak eta akordeolariak alaiturik. Gaez dantzaldia, Gregorio akordiolariaren eskutik. Programatik kanpo berriz, bakoitzak nahi duena.



Ander eta Rafa txapelkun Baztanen

Ander Agesta eta Rafa Errandoneak Baztango esku pilota txapelketako finala jokatu zuten, Olaizola eta Rodriguezen kontra, 18 eta 4ko emaitza lortuz. Modu honetara, txapelkun gelditu ziren. Iñauterietako egitarauan ikusi duzuen bezala, igandean izanen dute errebantxa.

Erregeak aurten ko-txean etorri behar izan zuten eguraldi txarra zela eta



ATERPE jatetxea

Tfnoa.: 63 41 79
ARANTZA

CATERPILLAR MIXTA
428 - 438



**SASOI EXKABAZIOAK
EXCAVACIONES SASOI**

PATXI ZELAIETA

☎ 450165 - 450286

OITZ (Nafarroa)

**MAGNETISTA - NATUROPATA
ZURE BEGIAK ZAINTZEN DITU**

✌ **BISTAREN ERREKUPERAZIOA**

- Begi alferrak, estrabismoa, kataratak, retinosis, begietako neuritis, begietako infekzioak, konjuntibitis, miopia...

✌ **REHABILITAZIOA**

- Artrosis, Artritis reumatoidea, bihurturak, lumbalgia, zerbikalgiak, psoriasis, diabetea, azaleko alergiak, zizareak, oinetako izerdiak, birusak, asma, buruko minak, kolesterola, erreuma, prostata

Kontsulta Ordutegia: Arratsaldeko 2etatik 10etara
(Ordua eskatu)

San Marcial 7 - 4. - IRUN ☎ (943) 62 30 55



Igerian egiteko moduko ura izan genuen Karrika Nagusian

Mina franko sortu du, batez ere dendetan, botikan, frontoian, karreteran eta pistetan

IXABEL ETA JOSUNE

Azken uholdeen eraginez urak mina dexente egin du, batez ere dendetan, botikan, frontoian, pistetan, errepidean, etab... Jendeak ahaleginak egin zituen urak gauza aunitz ez harrapatzeko, baina momentu batetik bertzerera aunitz igotzen zen ura.

Problema handiagoa izan zen lehengo errepideko zati bat erori zenean, urari tope egiten baitzion. Biharamonean ere ez zuen egun ederra egin eta urak lohi pila handia utzi zuen. Jendearen kolaborazioa ederra izan zen, herriari garbitu ona emanez. Lerro haue-tatik, eskerrik asko.



Jendearen laguntza ezinbertzekoa izan zen uraren kalteak moldatzeko

Iñauteriak hilaren 28tik 30era ospatuko dira

Ortizirala (28), Ulibeltza elkartearen egiten den gosariarekin hasiko da. Ondotik, gazteak baserrietan barna ibiliko dira.

Arratsaldean, haurrak mozorrotuta aterako dira eta txokoltia banatuko da Ulibeltzak elkartearen. Arratsean dantza arkupetan eta

gazteen afaria Bustitz ostatuan.

Larunbatean gosaria Iruribietan eta bazkaria Fondan. Arratsaldean mozorro dantza arkupetan eta afaria Herriko Etxean. Ondotik dantza.

Igandean gosaria Ulibeltzak elkartearen. Eguerdian karrozen desfilea. Frontoian probak eta zerri bat eta bildots baten zozketa. Bazkaria Ulibeltzak elkartearen eta dantza Amalur taldearekin.

Ixabel



SANTAMARIA Jatetxea

Espezialitatea euskal sukaldaritzan
Eguneko menua eta karta
Nagusia 30, Tf.: 45 00 43 - DONEZTEBE

IBARROLA

HAURRENDAKO ARROPA • MERTZERIA

Parrokia 6 • Tfnoa: 45 04 63 DONEZTEBE

ZURE OSASUNA ETA EDERTASUNAREN ZERBITZURA

Osasun fisikoa eta sikikoa
tratamendu naturalekin

•••

Bizkarrezurreko arazoak

•••

Zelulitisa eta loditasunaren
kontrako tratamendua

•••



Jean Paul Bouchet
Doktorea

☎ 45 07 08 • DONAMARIAKO BENTA

Zuntitaren Neguko arropa bero eta politak

ARROPAK

San Migel auzoa 27,
45 08 83 - DONEZTEBE



• OTORDUAK •
• LOGELAK •

Tfnoa: 450793

Doneztebe

Saraseneakoen alde diru eskea eta jaialdia antolatatu zen

Kaltetuek eskerrak eman nahi dizkiete udalari eta laguntze eskeini duten guziei

TXEMA ALDABE

Abenduaren 27an Merkatarien karrikako Saraseneko hirugarren solairuaren kortozirkuitu bat zela eta, su hartu eta erabat erre zen teilatuko lata eta guzi. Doneztebeko udala eta bertako jende aunitz berehala mugitu zen garbitze eta moldaketa lanetan. Inguruko herrietan diru eskean ibili dira eta hilaren 7an jaialdi bat egin zen Bordaxon dirua biltzeko. Kaltetuek eskerrak eman nahi dizkiete udalari eta laguntza eskeini duten guziei.

Bertzalde, euriteen eraginez karretera zenbait tokitan zuloz bete da eta lur-erortzak izan dira, nonahi bazterrak hondatu. Zenbait pareta ere lurrra erori dira eta Matteo etxetik bi zerri eraman zituen uhaldeak. Herritik pasatzen den Galbarrenea uhaldeak gainezka



Oskar Mindegia, M^{re} Jose Irribarren bere emaztearen ordez Erreka elkarteak zozketatutako saria jasotzen

egin zuen eta zenbait bajeretan ura sartu zen.

❖ **Jende** aunitz hurbildu zen Erregeen etorrera ikustera. Txistulariak, zanpantzarrak, antortzak eta opariak nagusi egun horretan. Halere, lotsa ematen zuen hiru erregen etorreraren abisua eta ekitaldi guztia erdara hutsean egitea.

Ludotekaren afera

Ludoteka eta hurrek jostatzeko duten tokia sortzearen proposamenak eztabai datu zuen udalak azkeneko bilkuran.

Marta Indart-ek aurkeztutako proposamena, kontzejal batzuren ustez, bidegarritasunik ez du gaur egun, alde bate-

tik kostu haundiegia direla eta bertetik orain udala liburutegia martxan paratzeko lanetan ari delako buru belarri.

Dena den Zabala zinegotziak proposaturik, Kultura eta Hezkuntza batzordean begiratuko dute gai hau.

ttipi-flash

❖ Kuartel

zaharra, Elgorriagako bidean zegoena alegia, bota eta bertan etxebizitzak egiten hasi dira.

❖ Erreka

kirol elkarteari 599.604 ptako dirulaguntza emanen dio udalak aurkeztutako gastua 1.214.355 pta.koa izan zen. Mendaur eskupilotari 183.960 pta. Laxoa Elkarteari 146.328 pta., bainan laguntza bildu ahal izateko, bestetan paratu zuten tabernaren kontuak argitu beharko ditu.

❖ Alkateak

Herriko Etxetik kobratuko duen soldata 324.061 ptakoa da. Alkateordeak 116.880 pta. eta gainerakoek 58.437 pta.



TELLETXEA

MOBLEAK

Moble erakusketa haundia

- Edozein klase eta neurriko altzariak egiten ditugu. Fabrikanteak gara.
- Haritz, gereziando, gaztainondo eta pinuzkoak.
- Armario enpotratuak.
- Tresillo eta tapizerietan aukera zabala.
- Ordaintzeko errextasunak eta zure erosketengatik opari ona eramanen duzu.

Rosa Seminario z/g Tfnoa: 45 02 58 - DONEZTEBE



Saldiasko tuberia guziak berritzeko proiektua onartu da

50 milioi pezeta inguruko aurrekontua du eta Hirurteko plangintzaren barnean sartua dago

T.A. ETA P. ETXEGIA

Saldiasko tuberia guziak, bai ur-zikinak eta edatekoak ere, berritzeko proiektua onartu da. Proiektu hau plan trienalean sartu da eta 50 milioi pezeta inguru kostako omen da.

Urte garaigatik harritzekoa bada ere, Saldiasen urik gabe egon dira egun batzuz. Depositotik heldu den tuboa bizpahiru tokitan hautsi omen zen.

Kontrabandoaz solasean

Urtarrilaren 6etik 9ra Langarra euskara taldeak antolatutako ekitaldien artean mahai-inguru bat izan zen Iturengo Txoko jate-txean. Mahai-ingurua kontrabandoa, lehen-go tresnak eta kontu zaharren gain izan zen arren, kontrabandoa suertatu zen gai nagusia, inguruan kontatzeko aunitz baitago. Zazpi hizlarietatik lau Donamariakoak ziren: Sandalio, Pakito eta arratsaldea girotu zuten Sorameneko Inazio eta Santiago anaiak. Gizon puska hauek jendea aho zabalik edukitzeko grazia izan zuten.



150 pertsona inguru bildu ziren dantza saioa ikustera Saldiasen eta udalak berendua eskeini zuten



Donamariako Sorameneko Inazio eta Santiago anaiak arratsaldea girotu zuten kontrabandoari buruzko hitzaldian

Malerreka mugitzeko bilera 26an

JUAINAS

'Malerreka mugitu' izenpean bildutakoak berriro ere urtarrilaren 26an elkartzekoak dira. Momentuz eta berzteen artean bizpahiru aferetaralotu dira, komisioetan antolatuturik.

'Zerbitzu eta baliabide'ko komisioari dagokiolarik famili planifikazio eta sexu heziketarako plangintzarena da horietako bat, aurre-ratuxea eta egun horretan aurkeztuko dutena; antzerki talde bat ere sortu da eta sendagaien bilketa antolatzeko modua aurrera darrai; estatutu batzu k eta legalizazio asmoa gorputzekotan daude; zaborraren birziklapena bulkatu nahi da, mankomunitateari laguntza eskeiniz.

Bilera, hilaren 26ean izanen da arratseko 8etan Elgorriagako Kultur Etxean.

ttipi-ttapa

5.700 harpidedun
20.000 irakurle

BEINTZAko OSTATUA

Tfnoa: 45 00 14



BEINTZALABAIEN

TXOKO erretegia

Bazkari, afari eta gosariak

ITUREN - Tfnoa: 45 04 91

Ituren

Zenbait ekitaldi egin ez baziren ere umore ona Kultur Egunean

Traste zaharren erakusketan eta artopil eta sagardo jatean bildu zen jende gehiena

IBAN ISASI

Giro ona eta umorerik ez zen falta izan Eguberrietako egun hauetan. Hala ere bi ekitaldi bertan behera gelditu ziren: HIESari buruz Koldo medikuak eman behar zuen solasaldia (istri-pua izan baitzuen kotxearekin) eta bertzalde Jon Bergaretxek eman behar zuen kantaldia, hau eriru zelakoz, ez ziren burutu.

Traste zaharren erakusketak oso ikusle kopuru handia eduki zuen, artopil eta sagardo jatean adin guztietako jendea inguratu zen. Halere,

Nahizerbizkor eta Eragaitz taldeen kontzertuan ez zen jende aunitzik egon.

Errege bezpera

Afarira jende aunitz joan zen eta era guztietako bertsoak aditzeko parada eduki genuen. Ondotik, Christianek, Fermin-txok eta bertze gainerakoek soinua jarri zioten gauari. Baina hauek ez ziren bakar-rak izan, ondotik Ituren-gero hiru auzoetan joariak aditu ahal izan baitziren goizaldera arte.

Iñauteriak

Iñauteriak urtarri-



Iñauteriak gainean ditugu. Prestatu mozorroak

laren 29tik otsailaren 2ra burutuko dira eta

otsailaren 5a kontuen eguna izanen da. Be-

raz, hasi hautsa kentzen etxeako arropei.

Zubietan

Mugimendu haundiko urte bukaera eta hasiera izan da

Argazki zaharren erakusketa arrakastatsua izan da

AINHOA MUTUBERRIA

1.993ko azkeneko egunean mugimendu handia izan da herrian. Eguberri bezperan haurrak etxez etxe ibili ziren eguberrietako kantuak abesten. Esan beharrik ere ez dago oso ongi pasatu zutela denak. Argazki zaharren erakusketak ere arrakasta handia izan du eta gehiena herriko jendeari esker, aunitzek beraien argazkiekin lagundu



Urtarrileko azken astean izanen dira Iñauteriak

dutelako. Mota guztietako jendea elkartu da. Ekitaldi hau Elutsa elkarteak antolatua izan da eta hemendik laguntzaile guztiei eskerrak ematen dizkie.

1994ean sartu gara eta dagoeneko bi jai egin dira Zubietan. Urte zahar egunean herrian bertan juerga bat egin zen eta berdin errege bezperan. Badirudi sarrera ona egin dugula urte berri honetan. Urtarrileko azken astean berriz, Iñauteriak.

Goizueta

Errege kabalgataren ohiturak segitzen du oraindik

Euriteak sortutako kalteak pixkanaka konpontzen ari dira

ESTEBAN AROZENA

Ez dakigu noiztik datorren ohitura, baina aspalditik egiten dela bai. Ez du beste tokitan duen ospea, baina haurrei ilusioa sortarazten die. Helduak ez dugu beraietan sinisten, baina etorrera ikustea gustatzen zaigu.

Hilbeltzaren 5ean urtero eratzen den errege magoen kabalgataz ari gara noski. Aurten ere ez dute hutsegini eta Gaspar, Meltxor eta Baltasargure artean izan genituen, Guraso elkarteak aurrez prestatu zien egitaraua txukun bezet. Aurrena, herriko kaleetan zehar ibiliz eta ondoren, hiruga-



Euriteek Hernanirako errepidean eragin handia izan dute

ren maila arteko eskol-haur guztiei opariak banatuz hainbat musu goxoren truke.

Euriteen kalteak

Eguberrietan jasandako euritearen

ondorioz izandako kalteak pixkanaka konpontzen ari dira. Esan behar da, baserrietako pizte gain Goizueta eta Hernani lotzendituen errepidea izan dela kaltetuena,

eta lehen ere halamoduko egoeran zegoela kontutan harturik, aisa suposatu daiteke orain nola egongo den. Dena den, ez omen dute luzaro iraungo aipatutako karreterako

zuloak, Nafarroako Gobernutik adierazi dutenez galipota kapa ederra botatzeko asmoa baidute epe motzean.

'egin'en aldeko kanpaina

Orain dela hilabete pare bat hasi eta orain bukatutzat eman den 'egin'en aldeko kanpainak arrakasta ikaragarria izan omen du. Diru bilketa honen arduradunek esan digutenez, aurrez jarritako helburu ekonomiko guztiak errete gaintitu dira eta lerro hauen bidez eskerrik beroenak eman nahi omen dizkie bere aportazioa egin duten guztiei.

Areso

Arau subsidiarioen proiektua eta industrialdea egitea onartu da

Industrialderako 25.000m²ko gordeko dira

JUANA M^a SAIZAR

Diputazioak 2,8 milioi ptako laguntza eman du Arau Subsidiarioak egiteko. Proiektuak 3,5 milioi pztako kostea du eta Diputazioaren laguntza bi zatitan etorriko da. Proiektua hilabete honetan ikusgai egonen udaletxean eta tekniko bat etorriko da azalpenak emateko.

Zona industrialak 25.000 m² ditu lante-



Sastinean 350 kilo baino gehiagoko zerria hil zuten

giak eta almagazak jartzeko. Momentuz

Nafarroako Gobernuak 'Mandriladora

Leiza' Elusaber para-jean 4.000 m² tan jar-

zteko baimena eman du, orainarte autobiak zabortege bezala ibili duen tokian.

'Azpiroz & Saralegi'k eskatua zeukan paraje honen ondoan beste lur zati bat ormi-gonera bat eraikitzeko eta udalak onartua zuen. Hortarako Aresoarrei 3 lanpostu sortzeko baldintza bete beharko du. Baina orain industrialdea dela eta, bertan 9.000 m² eskatu ditu bere ormi-gonera egiteko.



Ihottek ongi igarotzeko aukera ostiral honetatik asteartera

Aurrera elkarteak urtero antolatzen duen egitarauaz gain, euskaltegiak ere bertso saioa antolatua du igande arratsalderako

JOSEBA AZPIROZ



Astearte goizean 'Incansables' txaranga eskolara joanen da eta arratsaldean eskolatik plazara etorriko dira umeekin.

Ihottek direla eta, ostiralean, gaueko 9etan, sagardotegiko afaria izanen da Torrean; hau da: bakailo tortilla, txuleta, gazta, menbrilloa eta intxaurrak. Edateko, jakina, sagardo nahikoa. Prezioa 2.000 pzta.

Larunbatean, arratsaldeko 4etatik gora eskean ibiliko dira herrian barna. Gaueko 9,30etan atsoguratuaren afaria emanen da Aurreran 1.500ptan. Gaueko 12etan Torrean rock kontzertua 'Bizkarrezurra' taldearekin. Igandean, IKA euskaltegiaren programan arratsaldeko 7,30etan bertso saioa izango da Lizaso, Murua, Egaña, Telleria, Sarasua eta Manolo Arozena bertso-lariekin eta gauez bertso afaria Aurreran.

Astelehenean, 9etan puntu puntun baserrietara abiatuko dira eta bueltan baz-

karia izango dute Aurreran. Parke mugikorra ere jarriko da.

Asteartean, Erasotetik bueltan bazkaria Aurreran. Goizez 'Incansables' txaranga eskolara joango da eta arratsaldean plazan. Egunero musika plazan, Koxkorrena taldearekin.

Bi etxe turismorako moldatuko dira

Udalak Irusuko Kamineroaren Etxea eta Eskibarko Guarda Etxea moldatuko ditu erabilera turistikoa emateko asmoz. Oraingoz asmoa, erabilera norbaiti alokatzea da.

Irusuko etxean gelak alokatuko dira eta ondoko txabolan bizikletak eta zaldiak uzten ahal dira. Eskibarkoa berriz, mendizaleak gaua bertan igarotzeko erabiliko da. Berri-

ttipi-flash

David Anaut

25 urtetako burutarra kontratauko du udalak, euskara teknikari lanpostua betetzeko, egindako oposizio-lehiaketan puntuazio altuena ateratu duelako.

Elkarri

erakundearen Leitzako tailerra ostegunero elkartzen da 8,30etan, udaletxeko lehen solairuko aretoan. Informazioa jaso edo lan egin nahi duenarentzat irekiak izango dira bilerak.

tze lanak Sagastibelza eta Artola igeltsariak egingo dituzte 14.854.968 pezetatan eta Nafarroako Gobernua 8.750.527 eta Cerderna-Garalurrek 1.458.421 pzta. ko dirulaguntzak emanango dituzte.

ADUR TABERNA

Pintxoak, kaxuelak eta bokatak

Tfnoa: 610864 • LEITZA

ttipi-ttapa
631188

VITALICIO ASEGURROAK

M^a JESUS BARAIBAR ASTIBIA

- Herriko Plaza 5, Behea
- 31870 LEKUNBERRI
- © (948) 60 45 71

**GRUPO
VITALICIO
SEGUROS**



Lehen medikuaren etxea zena zenbait erakunderen egoitza izanen da

J. IGARABIDE ETA AA.

Udalak medikuaren etxea izandakoa berri-
tu behar du eta behitiko solairuan haurtzainde-
gia goizetan eta ludoketa arratsaldez kokatu-
tuko ditu. Goiko solairuan hainbat era-
kunderen egoitza eginen da: Xorroxin irra-
tia, pilota eta txirringulari taldea eta mendigoizale elkarte-
a. Behitiko obra urrirako akitu behar dute eta proiektuak 13 milioiko aurrekontua du.

80 milioi 'italianoen' egoitzarako

Franciscanoen egoitza erosteko aspaldi erabaki zuen udalak. Bertan campinga egitea espero du eta lehenbiziko tratuan 90 milioi pezetan ezarri zuten prezioa. Orain bertze tratua egin dute eta 10 milioi guttiago ordainduko da. Union Baztanesak, halere, sobera ordaintzen dela salatu du.



'Santiago patroia' elkarteko Eguberrietako txapelketetan lehen postuetan gelditu ziren neska-mutikoak sariak jasotzerakoan

Elizondok irabaziekin akitu zuen 1.993 urtea

Ohitura den bezala, Errege egunean izan zen Elizondoko Herriko Etxeko batzarrea. Bertan iazko kontuen berri eman zen.

Jon Franzesena alkateak eta kargodunek batzarrean bildutako 92 lagunei emandako informazioaren arabera

942.254 pezetako irabaziak izan zituen iaz Elizondoko Herriko Etxeak. Diru sarrerak 8.403.257 pezetakoak izan ziren

eta gastuak berriz, 7.466.327 pezetakoak. Gastu handienak Santiagoak, feriak, inauteriak, orakunde edo errege kabalgata antolatzen izan dira, baina diru gehiena ere hortik ateri da. Milioi bat pasatxo Baztango udalak eman du.

ttipi-flash

Iruritako

Babes ofizialeko bizitzen baremoa onartu zen. Etxebizitzak 'Ignacio Telletxea' eraikuntzak eginen ditu.

Argi-endarra

eramanen da S. Lekaroz, C. Lekaroz, Beartzun eta Gozaimendi auzoetara. Lanen zatirik haundiena Plan Trienalean sartzen da eta sartzen ez dena, udala eta argi-endarra jartzen zaienei ordaindu beharko dute.

Aritzakunera

egin den pista kalte haundiak sortu dira, Iparraldetik etorritako kamioiak ibili direlako gehiegizko pisuarekin. Pista horretan ere berritze lanetan ari dira, kuneta, urbideak, eta bertze zenbait lan eginen.

'Baztan'

liburua, Ana Marin margolariak eta Lander Santamaria eta Gabriel Inbuluzketa kazetariak egindakoa, hilaren 2an aurkeztu zuten Iruñean.

**OSKORRI
LIBURUDENDA**

Petrinea Tfnoa.: 592245
ORONOTZ-MUGAIRI

**ERRATZU
OKINDEGIA**

zure eguneroko ogia
453168 - ERRATZU

IPINGI

ZATOZ ETA IKUSI

Santiago 88, Tfnoa: 580939
ELIZONDO

**Iñauterietako teletan
aukera bikaina**

**MERKEALDIAK
Tela eta arropetan**

Santiago 71, ☎ 580166

**TALLERES
ZALDAIN**

ELIZONDO

► Aluminio eta burdin aroztegia
► Toldoen instalazioa

**Eskisaroi
jatetxea**

Jaime Urrutia, Tfnoa.: 580013
ELIZONDO

Eguberriak pasa bezain laister iñauteak hasi zaizkigu

Euriak Baztan-Basaburua inguruan ere kalteak sortu ditu

PABLO MENDIBURU

Urtezahar arratsaldean itxi zen Irurita-Berroeta elkartzen duen karretera Apeziturri izeneko parajea. Eguberriko astean botatako eurien kalteen ondorioz, bidearen azpialdia jana zegoen, karretera puxka bat zizlitzan geldituz. Joan den astean hasi ziren konpontze lanak eta hau idazterakoan kamioi eta kotxeen pasatzea debekaturik zegoen. Honek arazo batzuk ekarri ditu askorentzat bainan batez ere eskolara autobusean mugitzen direnentzat.

Iñauteak

Aste honetan dituzte Aniztar eta Berroetarrek. Urte batzuk



Almandozko Benito ostatuko Mus Txapelketa aipatu genuenez, erran behar, emakumeek ere izaten dutela bere txanda.

Arg.: Pablo

badira elkarrekin egin dituztela, etxez etxe puxka biltzen eta besta ederra eginez. Ortziralean Anizen eta

larunbatean Berroetan. Ziga eta Almandozen otsailaren 4, 5 eta 6an izanen dira.

❖ Errege egunean

herriko kontuen errete pasoa egin zen. Zigan Jesus haurraren nobena egin zuten haurrek, egunero tarta eta pas-

telen zozketarekin. Errege egunean, berriaz, haurtxo Jesus bat tokatu zitzaion Mattin Cenoz-i

ttipi-flash

Ornoz Mugairiko

urbanizazio proiektu berria ahobatez onartu zuen. udalak. Loperena eta Gortari arkitektoek egindako behin betiko proiektua onartu da.

Irungo bi gazte

galdu ziren Almandozko mendietan hilaren 8an, Saioatik bueltatzen zirenean laino eta elurrarekin topo egin baitzuten. Beraste parajeko behi borda batean lo egin ondotik behiti abiatu ziren Marin Zubiko etxera ailegatu arte. Berriz ere Oskoz-lertxundi familiak bere laguntza eskeini zien.



KIWI BAZTAN, S. A.

FRUTONDOAK ETA LANDARE ORNAMENTALEN
ZUZENEKO SALMENTA



MINDEGIA eta BULEGOAK:

Sutegia Etxea
31795 LEKAROTZ

☎ (948) 58 11 01

Fax-a: (948) 58 11 01

ARLA

ARDOTEGIA

Ardoak eta likorrak

Santiago 56, Tfnoa: 45 32 66
ELIZONDO



FOTO ZALDUA

ZURE EZKONTZARAKO

FOTO eta BIDEO
Erreportai on bat

ELIZONDO ☎ 580491

DONEZTEBE ☎ 450364

MARKOEN TAILERRA eta zure

karreterak ORDU BATEZ REBELATZEN

DITUGU "FUJI" kalitatearekin.



BAZTAN
ALTZARIAK
zurgindegia

121 errepide nazionala, 54. km

Tfnoa: 45 23 74 - IRURITA

- Sukalde, logela, jangela eta egongelarako mogleak
- Estiloko mogleak: Luis XV, Regence, L.Felipe, Napoleon
- Haritz, gaztain eta gerezi egurretan egindakoak



Artzaingorako eremuak bilduz lur elkarteak egin ditu Herriko Etxeak

Behi eta ardi hazkuntzaren geroa segurtatzeko 1,4 milioi libera gostako den obra andana egingen da bi urtetan

MIXEL ETA JACQUELINE

Bertako artzaingo eta nekazaritzari lotuak diren aktibitateen geroa segurtatzekotan, Herriko etx ea legez baliatu da Estadoarengandik %55eko diru laguntza baten ardiesteko. Horretarako Atxuria, Ibanteli, Larrun eta Suhalmendiko artzaingorako diren eremuak bilduz, lau lur elkarte egin behar izan ditu.

Elkarte horien barnean aurkitzen dira bai, herriko lurak bai eta ere lur pribatuak, hauetan % 98 herriko lurak dira. Zubentziora eta tasa onean eskuratu diru maileguak beharrezkoak diren hobekuntza lan batzuen egiteko ahala



Xuritegikoborda aldean zenbait lan egin ziren iaz
Artxiboko argazkia

emanen diote: horiek gaurko egunean ezin bertzeakoak dira nahi badugu behi eta ardi hazkuntzaren geroa segurtatu.


Bi urterentzat 1,4 milioi libera gostako den obra andana bat erabakia izan da: mendietako bide eta borden antolatzea, he-

rriko labakietara heltzeko bideen antolatzea...

1.993garren urtean 500.000 liberen obrak eginak izan dira Men-

diondokoborda, Xuritegikoborda, Akoka, Plaxindenbordako aldeetan.

Gaineratiko lanak aurten egitekoak dira.

 **ARMUA**
Jatetxea
Zugarramurdiko karretera 3. Km
Tfnoa.: 59 9131- URDAZUBI

 **SASKAITZ**
fontanería calefacción
Empresa colaboradora de
 **REPJOL**
AUTANO
Era guztietako instalazioak:
Etxekoak, industrialak...
Santiago 55 • Tfnoa: 581171 • ELIZONDO

ttipi-ttapa
5.700 harpidedun
20.000 irakurle

LARRAMENDI • Supergarbiteta Idorrean
Saskaitz plaza 1 (Butano ondoan) • ☎ 45 23 81 • ELIZONDO



Edredoia, alfombra, arropak eta larruak, idorrean garbitzen dugu

 **CRISTALERIA VELATE**

- Kristaleria orokorrean •
- Barnekaldeen dekorazioa •
- Bainurako mobleak eta manparak •
 - Pareta ispiluak •
 - Bidriera artistikoak •

Proiektuak eta aurrekontuak, konpromisorik gabe
Villaba Etorbidea 12 - **IRUÑEA** ☎ 132021
Merkatarien karrika 5 - **DONEZTEBE** ☎ 450991
Pedro Axular 1 - **ELIZONDO** ☎ 580825

Urdazubi

Xanti Villares eta Patxi Jaurena txapelkun

Iparaldeko benjamin mailako esku pilota txapelketa irabazi zuten Landesan

ALIZIA OLAIZOLA

Abenduaren 4ean Landeseko pilotalekuan iparraldeko benjamin mailako esku-pilota txapelketaren finala jokatu zen. Bertan urdazubiko mutiko andana batek parte hartu zuen eta Xanti Villares eta Patxi Jaurena 11 urtekoak txapelkun geratu ziren 18-14 iparraldekoen kontra aritu ondok.

Aipatuko dugu ere herriko apezak, Don Justino Taberna abenduaren 30ean bete zituena 87 urte eta 51 urte



ditu Urdazubin dagoela. Orain Iruñean dago operatu zute-lako. Bere ordez, Zugarramurdiko Don Javier apezka dago.

Etixerako hildako zerrien azterketa

Martxoaren 17a arte egingen da, zerri puxkak biltzeko ordutegia 8etatik 11ak arte izanen da, astelehenetik ortzirala artio Elizondoko osasun zentroan. Larunbatetan Baztan Balleko etxean. *Azterketa egiteko zerri puxkak:* diafragma giharraren zutabea, maxel giharrak, saihtsen arteko giharrak eta mingaina. Jabearen datuak eraman.

Mus txapelketa hasia da

15 bikote ari dira Indiano-baitako mus txapelketan parte hartzen, hiru taldetan banaturik.

Zugarramurdi

Eguberrietan argi ederrak ezarri zituzten aurten

Bertzalde, zenbait gazte oporrak pasatzera ganak dira, batzuk Brasilerara eta bertze batzuk Asia alderat

KORO IRAZOKI

Eguberrietako berri nagusia plazako iluminazioa izan da. Erranen nuke ez dutela ez New Yorken ere halakorik izan: bonbillazko bi izar eta 'Zorionak' dizdiratsu batzuk eta elizargietan animaleko pinu bat, kolorezko bonbillekin estalia hau ere. Hori bai, urtarrilaren 13an Zugarramurdin oraindik Eguberrietan gaude.

Oporretan

Aldi huntan Zuga-

ramurdiko berriak Brasildik heldu zaizkigu: Brasilen uda, 40º eta sanba ugari... brometan ari gara baina erdi egia da. Berriemaile bat, Margari, han baitugu oporrak pasatzen eta bidali dituen berriak horiek ziren.

Eta ez hori bakarra, izan ere bertze gazte talde bat Thailandia, Vietnam eta India alderat gana baita. Eskerrak oraindik bertze batzuk herrian gelditu direla buila pittat sartzeko.



Oporretarat ganak dira gazte andana bat

EZKONTZAK

Juan Angel Arizmendi Bereau eta **M^a Lourdes Andueza Oskoz**, Elizondo eta Doneztebekoa, abenduaren 24ean.

Jokin M^a Larunbe Arrizibita eta **M^a Begoña Goñi Elizainzin**, Barañain eta Elizondokoa, abenduaren 31an.

JAIOTZAK

Rosa Mindegia Petrirena, Elizondokoa, abenduaren 15ean.

Joseba Apeztegia Lasaga, Irurikakoa, urtarrilaren 4ean.

Joritz Oiartzabal Ceballos, Leitzakoa, abenduaren 24ean.

Ander Abuin Yepes, Lesakakoa, abenduaren 31an.

Oihane Goienetxe Iparragirre, Etxalarkoa, azaroaren 26an.

Ane Prieto Bellver, Berakoa, abenduaren 24ean.

Fernando Iturria Camilo, Berakoa, abenduaren 27an.

Maialen Mikelarena Bengoetxea, Berakoa, abenduaren 31an.

Beñat Herrero Garcia, Berakoa, urtarrilaren 5ean.

HERIOTZAK

Vicente Etxenike Arburua, Lekarozkoa, abenduaren 25ean, 79 urte.

Jeronimo Barrenetxe Etxenike, Arizkungoa, urtarrilaren 4ean, 84 urte.

Angel Etxenike Arburua, Lekarozkoa, urtarrilaren 9an, 64 urte.

Maria Etxegia Berroeta, Goizuetakoa, abenduaren 30ean, 82 urte.

Adèle Duhart Etchegoyen, Sarakoa, abenduaren 25ean, 97 urte.

Santiago Berrueta Altzugarai, Etxalarkoa, urtarrilaren 9an, 50 urte.

Miguel Jaunarena Elizalde, Labaingoa, urtarrilaren 3an, 40 urte.

Santos Alustiza Gogorza, Are-sokoa, urtarrilaren 5ean, 74 urte.

Juana Juankorena Agesta, Sunbilla-koa, urtarrilaren 3an, 84 urte.

Nicolas Txoperena Urrutia, Igantzikoa, urtarrilaren 1ean, 79 urte.

Jose Urtxegi Iturbide, Igantzikoa, urtarrilaren 5ean, 85 urte.

Santos Alustiza Gogorza, Are-sokoa, urtarrilaren 5ean, 74 urte.

Antonia Ozkoidi Usandizaga, Berakoa, abenduaren 25ean, 77 urte.



ZUBIRIA MINDEGIAK

- *Etxeak apaintzeko landareak*
- *Baso landareak*
- *Bertako frutondoak*

ARRAIOZ • NARBARTE
Tfnoak: 452032 (bulegoan) • 592034 (etxean)
Faxa: 948-581274



B
BIDASOA
GARBIKETAK

☎ 630557

Servicios de Limpieza BIDASOA, S.L.

Baztan-Bidasoako udalei:

Udal instalazioen garbiketen gestioa eta administrazioaz arduratzen gara.

ttipi-ttapa
631188

BEHARREZKO TELEFONOAK



SOS Nafarroa eta Urgentziak 088/061

Osasun Zentruak

Elizondo.....452367 / 580235

Doneztebe 450300

Lesaka.....637428 / 637336

Leitza510248 / 510573

Nafarroako Ospitaleak

Nafarroako ospitalea .. 102100

SSko urgenti

zerbitzua246750

Virgen del Camino

erresidentzia 109400

Gurutze Gorria226404

Gipuzkoako Ospitaleak

Irungo ospitalea 614600

Gipuzkoako ospitala ... 460299

Erresidentzia453800

Anbulatorioak

Irun630264/621106

Anbulantziak

Oitz450242/450342

DYA

Lesaka

(larrialdiak).....(943) 464622

Doneztebe

(larrialdiak).....171717

FUNERARIA

Doneztebe 637404

Elizondo580924

Lesaka.....637404

Suhiltzaileak

Oronotz-Mugaire592044

Garraioak

Bidasotarra631150

Baztanesa580129

Leitzarar515018

Aberiak:

Iberduero 450335/450336



Ttipi-ttapa berriaren aurkezpena izan genuen hilaren 4ean Berako bulegoan. Komunikabideetako lankideekin batera, Nafarroako Gobernuak Hizkuntz politikarako zuzendaritzako ordezkaria eta zeinbait udal erakunde laguntzaileetako alkate-zinegotziak izan ziren bertan, aldizkariaren xehetasunen berri zuzenean izateko

Iñauteriak erraldoan

Ezkurra, Baztango Orabidean eta Iruritako errekan hasi ziren iñauteriak, urtarrileko azken astean izanen dute segida Ituren, Zubieta, Sunbilla eta bertze hainbat herrietan. Iñauteri egun ofizialak otsailan izanen dira eta gainerako herri gehienetan ospatuko dituzte.

Arraitzko Bentak-Zozaia tartea moldatzeko 5.245 milioi

Belateko errepidea hobetzeko egin beharreko lanen artean, 5.245 milioi pasatxogastatuko dira Arraitzko Bentak-Zozaia tartea moldatzen. Nafarroako Gobernuak aipatu duenez, ingurugiroa zaintzeko beharrezko neurriak hartu dira.

Proiektuaren arabera, 13,2 kilometro moldatuko dira eta ez da Belateko tunelaren

lanen zati bat bezala hartzen. Errepideak alde bakoitzean kamioiendako bidea izanen du, tunelean ez. Aldaparik haundiena % 8koa izanen da eta tunelean % 2koa baino ez da izanen.

Lanak Arraitzko Bentan ondoan dagoen kurbatik hasiko dira, eta hortik, Ultzama errekararen eskuinteko aldetik Belateko tunelaren haserara ai-

legatuko da.

Nafarroako Gobernuak ingurugiroari kalte guttien egiten dion proiektua onartu du. Eraberean, atsedena hartzeko 70 metroko bi gune egingen dira, karreteraren alde bakoitzean eta apartatzeko bertze lau toki egokituko dira, alde bakoitzeko bina, bakarren bat ustekabearen bidean gelditzen bada ere.

IRAOLA ATEAK



Zure etxeko ateen moldaketa **marko guztia** aldatuz (ez zati bat bakarrik) prezio berean.

Zure atek **48 ordutan** paratuko dizkizugu, igeltsero lanik gabe.

Eta gainera: - Tarimak.
- Leihoak.
- Armario enpotratuak.

PINAR 18 • IRUN
☎ 61 13 42



INAKI ITURRIA

INSTALAZIO ELEKTRIKOAK

Eskatu aurrekontua konpromisorik gabe

Jauregieta 12
☎ 635028 - 635246
31760 ETXALAR

Curtidores 5 - 1. ezk.
☎ (943) 61 24 24
20300 IRUN

Patxi Mindegia eta Senosiainen arteko desafioa otsailaren 27an

Donezteben egingen da eta bakoitzak milioi erdi pezeta jokatu du

Otsailaren 27an, eguerdiko 12,30etan jokatu da Doneztebeko frontoian Patxi Mindegia 19 urteko zubietarra eta Antonio Senosiain 28 urteko olaguetarraren arteko aizkol desafioa. Kanaerdiko hogeina bago enbor moztu beharko dituzte eta bakoitzak milioi erdi pezeta jokatu du apostuan. Sarreretan ateratzen den dirua berriz, erdibana egingen dute.

Desafioa Mindegia gazteak luzatu zuen azaroaren 19an, Nafarroako bigarren mailako txapelkun suertatu ondotik. Apostuak ikusmin handia sortu du, iaz Senosiainek irabazi baitzuen gisa honetako proba bat eta orain Patxi errebantxa hartzeko asmoz egonen baita. Euskadiko 2. mailako txapelketan aldiz, Mindegia izan zen txapelkun eta Senosiain bigarren.



Patxi Mindegia, Euskadiko eta Nafarroako bigarren mailako txapelketak irabazi zituen iaz

Bot. pronton

❖ **Aurrera**

Leitzako futbol taldeak lehen postuari gogor eusten dio (bigarrenari bertz puntuko abantaila dio hau idazterakoan) Nafarroako Erregionaleko lehen mailako bere multzoan. Aurten mailaz igotzeko aukera ere izanen dute.

❖ **Getxoko**

pilota txapelketa irabazi zuten Apeztexea eta Mariezkuorenak, finalen Ansola eta Esnaola gipuzkoarrei 22-19 irabaziz.

❖ **Koteto Ezkurra**

Doneztebeko erre-montelari gazteak sei partidu segidan daramazki galdu gabe lerro hauek idazterakoan.

❖ **Maika Ariztegi**

Iturengo laisterkariak Nafarroako cluben arteko cross txapelketa irabazi zuen Gure Txokoa taldearekin.

❖ **Sunbillako**

paleta goma txapelketako azken partiduak jokatu dira larunbat honetan. Finala Estanga-Regeti eta Larralde-Lakostaren artean jokatu zuten eta 3. eta 4. postua, Iribarren-Elizalde eta Pierola-Pernaute-ren artean.

Eguberrietako txapelketetako sariak hilaren 2an banatu zituen 'Santiago Patroia' elkarteak

72 partehartzaile izan ziren 'Santiago patroia' elkartearen Eguberrietan antolatutako txapelketetan. Musean, Javier Iturralde eta Luis Torres izan ziren irabazleak, finalen David Bidart eta Juani Garmendiari irabaziz. Gainerako sailkapenak hauek dira.

BILLAR

• HAUNDIAK

- 1.- Jon Garmendia
- 2.- Alberto Barberena
- 3.- Jordi Gual

• TXIKIAK

- 1.- Iñaki Goienetxe
- 2.- Joseba Muñoz.
- 3.- Gustavo Muñoz

PING-PONG

• NESKAK

- 1.- Ana Biartola
- 2.- Idoia Sobrino
- 3.- Elena Barbero

• MUTIKOAK

- 1.- Iosu Sanz
- 2.- Mikel Habans
- 3.- Luis Torres

PALA

• HAUNDIAK

- 1.- Javier Indurain
- 2.- Erin Goñi
- 3.- Marco Molina

• TXIKIAK

- 1.- Iñaki Telletxea
- 2.- Nerea Lizasoain
- 3.- Enea Arretxea

'III. Jose Luis Larralde' memoriale Beti Gazte taldeak irabazi zuen

Gure Txokoa eta Baztan futbol talde jubenilen kontra aritu ziren

AITOR AROZENA

Beti Gazte futbol taldeko jubenilek irabazi zuten Jose Luis Larralde, Lesakako elkarteke jokalaria, entrenatzailea eta lehendakaria izandakoaren omenez Kristo-Enea futbol zelaian jokatuakotako hirugarren txapelketa.

Aurtengo udan, telebistetan famatutako sisteman jokatu zen txapelketa, hiru taldeak guztiak guztien kontra arituz. Lehen zatian Beti Gaztek 5 eta 2 irabazi zion Baztaneri. Bigarren zatian, baztandarrek 2 eta 1 irabazi zuten Gure Txokoaren kontra eta azkenik, Beti Gaztek 2 eta 0 irabazi zien beratarrei, modu honetara txapelketa bereganatu. Bigarren



Unai Almandoz, Beti Gazteko kapitaina, irabazleen saria jasotzen

postuan Baztan gelditu zen eta hirugarrena Gure Txokoa. Aipa-

garría da, orain arte jokatuakotako hiru txapelketak lesakarren-

tzat izan direla.

Txapelketa honek jokalaririk onenaren

saria Beti Gazteko Iñigo Rodriguezek eskuratu zuen.

Urtarrilaren 16a, mendi bizikletaren eguna izan da Bortzirietan

Beran eta Lesakan proba bana burutu da egun berean

Baten faltan bi mendi bizikleta proba izan dira igande honetan Bortzirietan. Pena da, urte guzía aukeran izanda gisa honetako bi proba egun berean suertatzea, baina aurtentzen horrelaxe tokatu da.

Proba bat, Gure Txokoa elkarteak bortzgarren urtez antolatu duen Berako mendi bizikleta ibilaldia. Aurtentzen ere hainbat jende erakarri du pro-

ba honek. Antolatzaileek gainera, bi ibilbide ezberdin egiteko aukera eman zuten, 30 kilometrokoa bat eta 13 kilometro t'erdikoa bertzea. Ibilbide luzean, bertzeak bertze Sarralla, Mendigaita, Lizuniaga eta Ardanbide barna pasatu behar zuten Berara bueltatu aitzinetik. Ibilbide motzean zuzenean Lizuniaga igotzen zen, Ardanbidek Berara itzuliz.

Lesakan, bertzalde, peña batzordeak lehen aldiz antolatu du San Antonerako martxa erregulatua, oinez nahiz mendi bizikletaz. Honetan ere jende dextek parte hartu du, San Anton auzoan besta eguna zela proiektuz.

San Antonera ailegatu baino lehen, Barnarta eta Gardelkobagoetatik pasatu behar izan zuten parte hartzaileek.

Hamabostaldiko

jokaldiak



Julian Retegi pilotari eratsundarra.

Eskuz binakako txapelketan izugarritzoko erakustaldia ematen ari da. Beloki atzelaria uste baino gaizkixiago ari bada ere, eratsundarrak bere nerbioa eta jokoa erakutsiz, hainbat partidur irabazi ditu.



Apezetxea-Almandoz pilota bikotea.

Pena da Diario Vasco antolatutako txapelketaren finaleira iritsi eta galtzea. Apezetxea goizuettarra ederki aritu bazen ere Almandoz lesakarrari gaztetasuna nabaritu zitzaion. Animo!

AGENDA EGUNEZ EGUN

Urtarrila
LARUNBATA 22

LEITZA

► IHAUTERIAK.

9,30etan Aurrera elkartearen atsoguratuaren afaria. 1.500 pta.
12etan Torreon kontzertua BIZKARREZURRA taldearekin.

Urtarrila
IGANDEA 23

LEITZA

► IHAUTERIAK.

7,30etan Bertso saioa: Lizaso, Murua, Egaña, Telleria, Sarasua eta M. Arozena. 10etan bertso afaria Aurreran. Egunero taldeak joko du Plazan.

ARGAZKI ERAKUSKETA

ELIZONDO

► Urtarrilaren 10etik otsailaren 4era
«Amerikako Argazkiak» Kultur Etxean.

Z I N E KARTELDEGIA

DONEZTEBE

► Urtarrilak 22-23.

«Eternamente joven»

► Urtarrilak 29-30.

«Algunos hombres buenos».

► Otsailak 5-6.

«Jamón jamón»

LEITZA

► Urtarrilak 30.

«El fugitivo»

► Otsailak 6.

«El Mariachi» eta «Tortugas Ninga III»

AGENDA PRAKTIKOA

ERREZETA



Zerri patak



Rosario MARTIKORENA
Haritzpe Jatetxea
•Etxalar•

Osagaiak

4 lagunentzat

Patak egosteko: • 2 zerripata • 2 porru • tipula koxkor bat • 4 azenario • gatza pixko bat • Saltsarako: tipula bat • 4-5 baratzuri hortz • ardo xuri baso bat • haragi salda edo ura • 250 gr. ilar •

Prestatzeko manera

Zerri patak erditik puskatu goitik behiti eta berriz erditik

laurdenetan gelditze-ko. Ura ausarki duen eltze batean porrua, tipula, azenarioa eta gatzarekin batera egosten paratu egin arte (hezurra berexi arte) eta utzi.

Hezur haundienak kendu eta enpanatu.

Kazuela batean olioia, tipula xehetua eta baratzuriek jarri.

Gorritu ondotik, irin pixka bat nahasi, bota salda eta utzi egiten ordu kuarto bat. Gero patak sartu eta eduki ordu erdiz. Bortz minutu antzinetik gisante edo ilar berdeak bota.

BASERRIA



❖ ZERRIKIA ❖

•Zerrikumea (20 kilokoak): 4.900 pztza.
•Zerri gizona (95-100): 140 pztza/kilo
• Zerramak: 85 pztza./kilo bizirik.



❖ BEHIKIA ❖

•Aretze gizenak:
Idixkoak: Pztza/kg. Kanal
Extra.....620-650
1.koa.....600
2.koa.....580

Urruxak: Pztza/Kg. Kanal
Extra 630-660
1.koa 620
2.koa 600
Oharra: Prezio hauek 300-340 Kg. kanalean dauzkaten idixko eta 200-250 Kg. dituzten urruxentzako.

•Aretze tikiak

(15 egun ingurukoak):
Nabarrak: urruxak 20-27.000 eta idixkoak 33-38.000 Pztza.

Mestizoak: urruxak 40.000 eta idixkoak 45-50.000 pztza.

•Behi zaharrak:

Behi nabar gizona: 430 Pztza./Kg. Kanal. Behi gorri ona: 470 Pztza /Kg. Kanal.

DATU-ITURRIAK: EHNE,

KIWI BAZTAN, ZUBIRIA MINDEGIAK...



❖ FRUTONDOAK ❖

Hiru urteko landare bakoitza
•Bertako sagarrondoak 930.
•Udareondoa 930 pta.
•Bertako aranondoa 1.050 pta.
•Gereziondoa 1.050 pta.
•Kiwiondoa 600 pta. (2 urtek.)
•Feijoondoa 1.000 pta. (2 urt.)



❖ BARAZKIAK ❖

•Tipula zientoa 250 pta.
•Udaberriko aza 500 pta.
•Letxuga zientoa 400 pta.
•Porrua zientoa 300 pta.



❖ Zure ingurua klase guzitako inektuz (xomorro, zinaurre, armiama, kukuxu...) eta arratoi-xagutxoak garbitu nahi baduzu, deitu! Gu arduratuko gara horretaz!

BERA
DESINFECCIONES

☎ 63 01 55
BERA

Zati honek **3.000 Pta.** balio ditu

3.000 : 5.700 errebista =

0,52 Pta. errebista bakoitzeko

ZINE KRITIKA

«Little Budha»

Bernardo BERTOLUCCI
EEBB - 1993

Bertolucci italiar zuzendaria, Pasoliniren laguntzailea izan ondotik, hirurogeiko hamarkadan, politika kutsuko drama psikologiko batzuk egin zituen. Gehienak sarituak eta aipatuak izan ziren, "Partner", "Conformista", "Estrategia de la araña" eta mundu erdia eskandalizatu zuen "Pariseko azken tangoa".

Gaineratu zitzaion ustegabeko fama hura garbitu, eta gaizki ulertuak bideratzeko "Novecento" lau orduko drama epiko harrigarria egin zuen. Geroztik, bere gaitasuna ez du inork zailantzan jarri. "Azken enperadorea" eta "Zeru protektorea" izan ziren ondotik egin zituen lanak. Goi mailako filmak biak ere. Oraingoan bere "Little Budha" honekin zulo ilun eta huts batera salto egin duelakoan gaude.

Orain dela ez denbora aunitz, Andaluzian Tibet-eko Buda bersortu omen zen ume baten gorputzean eta



bere gurasoak Tibet-eraman zuten lege zaharrei jarraituz hezitzeko. Andaluziako gertaera hau Bertoluccik Seattle-ra eramaten du arazo komertzialengatik.

Bikote ipar-amerikar arrunta horren umea, apez budista batzuk Tibetera eramaten dute hazi eta hezitza.

Nahasketa eta flash-back gehiegi sortzen ditu filma horrek, umeendako egina dela dirudi, gaur egun umeendako egiten diren filmak komertzialenak baitira.

Budismoa nahiko modan dago jende aspergarrien artean, eta baliteke, beharbada, filma beraien gustokoa izatea.

JOSETXO SUSPERREGI

IÑAUTERIAK

ANIZ-BERROETA

► **Urtarrilaren 21etik 22ra.** Ortzi-ralean Anizen eta larunbatean Berroetan.

SUNBILLA

► **Urtarrilaren 28tik 30era.** Karroza desfilea 30ean (igande eguerdian) izan da. Ondotik frontoiko saioa, zozketa, bazkaria Ulibeltzak elkarrean eta dantza Amalur taldearekin.

ITUREN

► **Urtarrilaren 29tik otsailaren 2ra.** Urtarrilaren 31n etorriko dira Aurtiz eta Zubietarrak eta otsailaren 5ean kontuen eguna izan da.

ZUBIETA

► **Urtarrilaren 29tik otsailaren 2ra.** Osailaren 1ean Aurtiztar eta Iturendarrak Zubietara joanen dira.

GUARDIAKO BOTIKAK

► **Urtarrilaren 17tik 23ra** Lesaka, Sunbilla, (F. Lezaun) Elizondón eta Leitza
 ► **Urtarrilaren 24tik 30era** Etxalar, Doneztebe, (J. Iturralde) Elizondón, Arribe eta irurtzun
 ► **Urtarrilaren 31tik otsailaren 6ra** Lesaka, Sunbilla, Irurita eta (Lezaun) Elizondón.

ARTEKARI TALDEA

ARTEKARITZA EKONOMIKOA ETA LABORALA

LESAKA:

• Asteazkenero, goizeko 10etatik arratsaldeko 6etara.
Non: MALDAERREKA S.L., Bittiria 6, Tfnoa: 637404

IRUÑEA:

• Bulego Zentralean: ARTEKARI S.L, Tfnoa: 17 55 40
Non: Rioja Etorbidea 6, Atzekaldea Behean.

- ✎ Langile Autonomoak
- ✎ Nekazariak eta mendi langileak
- ✎ Nominak eta Aseguro Sozialak
- ✎ Lan-kontratutarako laguntzak
- ✎ Enpresa berri ezberdinen sortzea
- ✎ Diru-laguntza ezberdinak
- ✎ Kontabilitateak
- ✎ IVA eta IRPF
- ✎ Errenta aitopenenak
- ✎ Elbarritasun eta jubilazio espedienteak
- ✎ Bideragarritasun planak eta aurrekontuak

ZURE IRAGARKIAK HEMEN AGERTZEKO DEITU (9) 48 - 63 11 88 *ora*

ETXEBIZITZAK

ORONAZ MUGAIRI. Bajera bat alkilatzeke lehengo CAMP-ean. 60 m², kaja fuerte eta eskaparetearekin. Espeziala pelukeria, seguro agentzia edo horrelakoentzat. ☎ 451518.

ELGORRIAGA. Etxe berria (pisua eta atikoa) salgai. Prezio onean. ☎ (943) 213859.

BERA. Legia karrikan 105 m²ko pisua salgai. ☎ 631135.

LESAKA. Bittirian 77 m²ko bajera salgai. ☎ 637404.

LESAKA. Bittirian 130 m²ko bajera alokatzen dut. ☎ 637404.

LESAKA. 82 m²ko bajera alkilatzen da Lamina-ciones-erako bidean. Prezio onean. ☎ 637872.

MALERREKA - BAZ-TAN. Baserri bat erosi nahi dugu bertan bizi ahal izateko. ☎ 450325 (Iñaki eta Ines).

IBILGAILUAK

Lada Samara autoa salgai. NA-Z Merkea. ☎ 634137. Gauez.

Opel Kadett GSI-16V salgai. Haize egokitua, ABS, leiho elektrikoak eta itxiera zentralizatuaz hornitua. NA-X. Kilometro guti ibilia eta egoera ezin hobean dagoena. ☎ 631157.

Skoda markako kotxea salgai, SS-T. Oso merke. ☎ 453219.

Bultaco Montesa 350 c.c.koa salgai. ☎ 453120 (Ignacio).

Citroen C-25 furgoneta NA-V (5 urtekoa) salgai. Egoera onean. ☎ 630721 (arratsetan).

AZIENDAK

Ardi xakurkumeak salgai. ☎ 604624.

Ardi zakurkumeak oparitzen dira. ☎ 630766 (Ramon).

Zerria, 150 kilokoa saltzeko. ☎ 637490.

Xakurkumeak Collie arrazakoak saltzeko. ☎ 599218.

DENETARIK

BERA. Urtearen azken egunetan kartera bat galdu nuen, gris kolorekoa eta barnean dokumentu aunitz zituen. Norbaitek harrapatu baldin badu eraman dezala Berako Herriko Etxerat edo bertzenaz Errotazar karrakako 1 zenbakira.

Zurazaharrak (soliboak, bigak, pilareak, atek) salgai. ☎ 604624.

Argazki kamara salgai. Praktika BC1 markakoa, bi objetibo eta 70-210 zoomarekin. Prezio onean. Kamararen poltsa oparituko nuke. ☎ 580311 eta 580121 (Maria).

Kart Racing Formula 1 jokua (Scalextric gisakoa) salgai. ☎ 610867 (12etatik 2etara).

Mendiko bizikleta erabili gabea, prezio onean salgai. ☎ 637165. edo 637453 (gauetan hobe).

Bideo aparailua VHS-koa salgai. ☎ 637165 edo 637453 (gauetan).

Nintendo bideo-jokoa salgai, 8.000 pezetan. ☎ 450998.

Pelukeria ekipatua alkilatzen da Lesaka erdi erdian. ☎ 637034.

Fischer eskiak bi metroko luzerakoak eta *Salomon* eskiatzeko botak (44-45) salgai. ☎ 631391 (arratsaldetan).

Informatika klaseak ematera Lesakan (MS-Dos 6.2, Windows, WP 9.1, Word, etab.). ☎ 637993 (Aurelio).

Ziklomotor bat, Peugeot 103 Sport, gorria, bi urtekoa, gutti erabilia. Prezioa: 5.000 libera. ☎ (07 33) 59542071 edo 59542555 (Saran).

BERA. Kanttonberri eta Alzate bitartean RayBan eguzkitako betaurrekoak galdu ditut Harrapatu badituzu deitu. ☎ 630812 (goizetan).

Victoria markako akordeoia salgai. 120 baju dituen. ☎ 637792 (arratsetan).

LANA

Etxe batean lan eginen nuke eguneroko. ☎ 451681.

Aizu neska mutil edo etxeakoandre, ez du axola

adina. Kosmetika, apainketa eta perfumerian ari den frantziar multinazional batek jendea behar du (salmenta zuzena). Diru iturri ona, muestrario ederra. Aukera ederra zuzetzat!. ☎ 510506.

AGURRAK

Begi orlegiak dituen igantziararentzat: zutaz eroturik nabil. A.E.

Aurtizko Goretiri zorionak zure urtebetetze egunean (urtarrilak 18). Lagun bat.

Urdazubiko Joxe Mari, Amaia, Felixa, Fernando, Beatriz, Iñaki, Itziar eta Xabierri urtarrilaren 12, 20, 26, 30, 31 eta otsailaren 1, 3 eta 26aren partez, zorionak zortzieren eta ongi ospatu. Alizakiak.

Etxalarko Ana Mari A. Zorionak zure 18 urte betetzen dituzulako eta ea Elizondora baino gehiago Berara etortzen zaren. Zure Berako lagunak.

Lesakako Jabirentzat. Berak dakien neska baten partez. Beretaz maiteminduta nago. Bordatxon ikusiko gara.

*Orri honetako iragarkiak eta abimak debaldekoak dira.
Zurea agertu nahi baduzu deitu 631188 Ora edo idatzi gure bulegora:*

*ttipi-ttapa
Herriko Etxeko plaza 1
31780 BERA*

• **MENDAUR MOTOR** •



Leitzako errepidea,
Tel.: 45 03 33
Doneztebe



- Kotxea ITVa pasatzeko prestatuko dizugu
- Mekanika eta elektrizitatea
- SUZUKI SANTANA eta OPEL ibilgailuen salmenta
- 4 gasen aztertzailea: injekzio ibilgailuetarako, katalizadore eta karburaziorako
- Aukerako ibilgailuak
- Gurpilak: - Salmenta
- Orekatzea
- Lerroztatzea

ARIN
ZERBITZUAK

Parrokia 21 • Tfnoa eta faxa: 450226 • DONEZTEBE

ZUNZARREN gestoriaren kolaboratzailea


- *Era guztietako aseguroak*
- *Transferentziak*
- *Karnetaren berritzea*
- *Ibilgailuen bajak*
- *Garraio txartelak*
- *Multa edo isunen erreklamazioak*
- *Kotxe, traktore eta ibilgailu astunen matrikulazioa*
- *Eskrituren likidazioa, etab...*
- *Bidaiak bideratzen dira*

ALMACENES ETXANIZ, S.A.



Juan Arana 3 • Tfnoa eta faxa: (943) 611767 • IRUN

Bikoitz itzazu interesak



(*) Zor publikoan eta letretan



(*) Plazo fijoan